

## PEDRO BERRONDO LASARTE

(1919-2002)

Pedroren herritarra naizenez, eta haren lagun mina bezala, niri egokitu zait Pedro Berrondo hil dela adieraztea eta, Euskaltzaindiaren izenean, haren ohar nekrologikoa idaztea. Lan hau gogoz egingo dudala ez daukat esan beharrik, hain da handia haren bizi-arrastoak utzi didan goldatza eta erreten sakona.

### 1. APAIZ BATEN FITXA ARRUNTA

Apaiz baten fitxa arruntak, Don Pedro Berrondorenak, honelatsu esango digu: Oartzunen jaio zen 1919an. Apaiz-ikasketak Gasteizko Seminarioan egin ondoren, 23-24 zituelarik apaiz egin zen, lehenengo apaiz-lana izan zuelarik Azkoitiko Madariaga auzoa pastoral-lanetan zerbitzatzea. Azkoiti utzita, «Los Ríos» misioetara joan zen. Despedidakoan oartzuar apaizgaiei honelatsu esan zigun: «bizitzan zerbait egin behar zuela eta misioetara zijoala».

Berriro hona etorri zen, bereetara, 1965ean. Urte gutxi batzuk Eibarren egin ondoren, Donostiako San Martin parrokiara izendatu zuten, Donostiako hasiera-urteetan Euskaltzaindian lan bat egiten zuela, Manuel Lekuona zelarik Euskaltzainburua.

Hil zitzaigun 2002ko abenduaren 27an. Horixe da apaiz-fitxa arruntak, eta herritar fitxak ere, Pedro Berrondori buruz dioena.

\* \* \*

Baina honelako fitxa arrunt batek ez digu azaltzen apaiz baten nortasunaren eta erreakzioen berririk eta jarrera zehatzik. Fitxa arruntak ematen dizkigu apaiz baten bizitzaren zenbait datu baliagarri, baina ez digu ematen Pedroren bizitzaz eta nortasunaz xehetasun jakingarriagorik. Pedro Berrondo ez zen erraz sartzen gure fitxa arruntetan, gure legeetako kontuetan. Zerbait esan-guratsuagoa eskatzen zaigu, zerbait egokiagoa, zerbait bereziagoa. Eta gaur hemen halaxe egitea nahi genuke.

## 2. PEDROREN NORTASUN BEREZIAZ BERRI ZEHATZAGORIK

Pedro Berrondo gorputz indartsukoa zen, biguna eta errespetua irabazirik zeukan Oiartzungo apaizen artean. Gero jakinduria herrikoian oinarri hartzen zuen bere iruzkinetan, gizon zaharren eskarmentua, batez ere Ecuador-eko «Montuvisoena», askotan aipatzen zuela. Eta bereari eusten zekiena, baina tematsu izan gabe, arrazoitara amore ematen ikasia.

Haren etxeko gertakizunek asko antzaten dute Pedroren nortasuna. Aita nekazaria zuen, baserri onekoa, aurrerapidea gogoko zuena eta zuhaitzen usiatzeari emana bizi izan zena. 1936ko gerra zibila piztutakoan, aita zinegotzia zuen Oiartzungo Udaletxean. Gerra zibilaren hasierako nahas-mahas hartan, herritar askoren egoerak eta larritasunak bultzaturik, Iparraldera ihes egin izan zuen bizia salbatuko bazuen, Urruñan bizi izan zelarik *Arotzenia* izeneko hotelean. Aita ez zutenez atzitu, militarrek fusilatu zuten Pedro Berrondoren anaia Joxe Mari, 17 urtekoa.

Bada Don Kijote Mantxakoaren eskaintzan niri behintzat zirrara berezia sortzen zaidana; eta hala dio:

«Xegundo, nere aita zenari.  
Eta Kontxesi nere amari.  
Biotz-biotzetik.  
Berrondo eta Lasarte'tar  
Pedro Maria Izaskun'ek».

Aita hila zuen Pedrok eta ama bizi. Eta eskaini zien bere gurasoei, bizi-tzaren testigu zirenei, bere lanik luzeena eta garrantzitsuena.

## 3. PEDROREN CARACAS-EKO EKINTZAK 339 APAIZ EUSKALDUNEN ALDE

1960an, Euskal Herriko apaizek argitaratu zuten dokumentu bortitz bat, diktadurapean bizi zen herriaren askatasun-eskasia salatuz, 339 apaiz euskaldunak izan ziren dokumentuari bere sinadura ipinitakoak (1).

3.1. **1961'eko urtarrilaren 5ean:** Aita Santu Joan hogeita hirugarrenari gutuna idatzi zioten, «guk auzia nola ikusten dugun» zehaztuz. Izenpetzen dutenen artean Pedro Berrondoren sinadura dator, honela: «Presbítero, Pedro Berrondo, Vicario de Quevedo, Ecuador, expresando el criterio existente entre los sacerdotes vascos y seglares vascos residentes en el Ecuador».

(1) S. ESNAOLA - E. de ITURRARAN, 1994, *El clero vasco en la clandestinidad (1940-1968)*, Lizarra, t. 1, 323-326.orr.

3.2. **Ahalegin antzua:** «En un principio, Pedro Berrondo intentó que los misioneros enviaran un escrito a la Santa Sede, rogando que no se tomaran medidas contra los 339 firmantes.

Aquello abortó porque:

- ellos dependían de los obispos de las tres diócesis vascas y podían retirarles de la misión y hacerles regresar a sus diócesis;
- eran súbditos españoles, y podían retirarles los pasaportes y retirarles autorización para residir en el extranjero.

\* \* \*

3.3. **Pascual Aranaren ohar laburra Vatikanuari:** «Berrondo sin la menor vacilación, la suscribió. Pero sin previa consulta, por su propia cuenta, añadió una nota final expresando el criterio existente entre los sacerdotes vascos y seglares vascos residentes en el Ecuador; lo firmó en su nombre.

Cuando llegó a conocimiento de los Obispos, éstos pidieron a cada uno de los firmantes, que rectificaran por escrito.

El Obispo de Vitoria, Sr. Peralta, diócesis a la que pertenecía Pedro, pidió a través del Superior General –que era D. Jose Zunzunegi– que Berrondo rectificara, pero Berrondo rechazó toda rectificación.

Entonces, el Superior le dijo que tendría que volver a casa, porque esa era la orden del Obispo. Un grupo de los misioneros, al enterarse, manifestaron su decisión de solidarizarse con D. Pedro Berrondo.

Así quedó la cosa; Don Pedro no volvió a Euzkadi».

#### 4. ARANTZAZUKO BILTZARRA, EUSKERA BATUAZ (1968)

Nire Euskaltzaindiko sarreran, eta Pedro Berrondoren aurrean, han baitzen egun hartan Pedro, esan zuen A. L. Villasantek: hasieran, Arantzazuko partaideak pozik atera zirela hango bileretatik; gerora, aktak argitaratu zirenean, sortu zela eztabaida eta iskanbila (2). Nik, neurez, ez dakit orduko kontuen berri, eta, geroztik ez dut sentitu gauzak nola izan ziren jakiteko gogorik.

Geroztiko euskal historian murgiltzea egokitu zitzaidan, eta bakeak egiteko apeta sentitu nuen, eta denegatik –bi aldeetako jendeetatik– esenplu ona jasotzea eta gauzak bide onera ekartzea. Hala egin nuen orduko nire maisue-

---

(2) A. L. VILLASANTE, «Joan Mari Lekuonaren Euskaltzaindian sartzea» in *Euskera* 34 (1989): «Gela hartan bildutakoan artean, ez zuen inork desakordiorik agertu... Istilurik larrienak, ordea, gero etorri ziren... Arantzazuko Biltzararen lanak *Euskera*-n azaldu zirenean 13-14.or. Pedro Berrondo Euskaltzaindian ari zen lanean, Donostiako ordezkartizan. Badirudi bere bizkar doazela akten hutseginak».

kin eta Pedro Berrondoren moduko ikasiekin. Eta benetan estimatzen dut Berrondoren lana, ekinaren ekinei jarraituz egina, nahiz ez beti asmatu euskararen gora-beheretan.

Bergaran agertu zitzaigun oparo eta temoso, nolakoa zen euskaldunen jarrerara, euskara batuaren arazoetan. Zein zen gehiena erabiltzen zen euskal-eredua geure idazkietan.

Euskara batuaren arazoa bideratu zen, orduko euskaldunei esker. Gaur beste arazoak dauzkagu: euskararen erabilera. «Euskarak inoiz ere izan ez duen presentzia du gizartean», «Euskara aurrean da gizartearen maila guztietan», «Euskarak aurrera egin du»...(3). Arantzazuko bileretatik hona aurrerapide ondrosoa egin dugu. Baina aurrekoak agur esaterakoan haiei agindu behar diegu, saiatuko garela, etsipenik gabe, lantzen gure hizkuntzaren altxorra.



## 5. *DON KIJOTE MANTXAKO LAN LUZEA ETA ARRETATSUA*

Pedro Berrondok, praxis aldetik lan oparoa utzi zigun. Lan luzea eta arretatsua: *Don Kijote Mantxakoa* (4). Euskera batutzeko lanean, Pedrok, hain gai minberan, bere erantzun serioa, bere ikuspegia emanik utzi digu.

- a) **Prestaketa lana:** Oso ondo zekien gaztelaniak, bere maisu-maistrak zituelarik «montubioak», Kijoteren mintzaeratik hurbilak, gaztelania zaharreko erakusleak. Jolas batean aritzen zen berak zekien gaztelaniarekin eta bere etxeko euskararekin eta berak liburuetatik ikasitako ereduakin.

(3) P. SALABURU, 2002, *Euskararen etxea*, ikus atalburuak, 1, 41-44.orr.; ikus atalburua 2, 45-49.orr.; ikus atalburua 3, 50-55.orr.; ikus atalburua 4, 56-62. orr.

(4) M. CERVANTES SAAVEDRA.

- b) **Haren aukera:** Gaurko literaturan itzulpenetan egituratutako hizkuntzarekin jokatzeko badugu ere, Pedro Berrondok herri euskara aukeratu zuen, haren amaren euskara, itzulpen onaren neurria emango zuena, batez ere liburuetan izkutatutik azaltzen zena: euskara zaharra.
- c) **Gipuzkoako Diputazioan** *Don Kijote Mantxakoaren* aurkezpena egin zenean gogoratzen naiz nola aipatu nuen doinukeraren presentzia idazlan honetan. Gaur ez daukat orduko mintzaldiaren arrastorik, eta ez dut denborarik horrelako bereizkuntzak egiten hasteko.
- d) **Pedro Berrondok** utzi nahi zuen gai eztabaidatueta haren iritzi gramatika. Gaur ez dakit zer izango den etorkizuna. *Don Kijote Mantxako* hor gelditzen da testigu: zer zen eztabaidatu zena, eta ikuskizun dago zer den gelditu dena, zein zen asmatu zuena. Baina beti lana da garaile aterako den alderdia. Bakoitzak bere iritzien arabera, saiatu da, ahal den neurrian, uzten arrasto bat, berak dezakeena agertuz. Hala egin zuen Pedro Berrondok ere.

## 6. AZKENA

Aukera bat egingo dugu Pedro Berrondoren esaldietan, haren mezua ispilatu alde:

1. «Bizitzan zerbait egin behar zuela-ta, misioetara zijoala bera». (Azkoitian buruturiko pentsakizuna).
2. «Pakeak egin nituen nik gerrarekin». (Seminarioan eta Caracas-en lorturiko barkamen oparoa).
3. «Apalki eskatuz ez hartzeko neurri esturik 339 izenpetzaileen aurka. (Caracas-en besteentzat zigorra ekidinez).
4. Horrelako lanak (*Don Kijote Mantxakoarenak*), salbatzen du bizitza baten zeregin berezia, intelektual baten bere herriarekiko zor bortitz eta estutzailea.
5. «Xegundo, nere aita zenari.  
Eta Kontxesi nere amari.  
Biotz-biotzetik.  
Berrondo eta Lasarte'tar  
Pedro Maria Izaskun'ek»
6. «Agur, Pedro Arangurengoa:  
Egun handirarte».

*Juan Mari Lekuona*